

CRISTIANA DOCTRINA  
AITA GASPAR ASTETEC

FRDERAZ ESCRIBIDA

ETA GUERO

DON GABRIEL MENENDEZ DE LUARCAC

GAUZA ASCO ERANTZITA ATERA EBANA

Orain euskarara hizkiala arteien dau argitala zerbitzat gauzatagoiak

LAUDIYOCO ABADE JAUNEN

ENCARGUZ ETA COSTUZ,

DIAR LIRIAN BAIYEZCOA



Eta orain seigarrejiez imprimidu da.

BILBO

Emeterio Verdes en etxian

1909, GARMEN URTIAN

Soldaten da bere librerijas, Correo callan, número 9

11  
60

11  
19  
D

42  
60

2520



M- 8624

ATV

R- 36274

18.883

CRISTIÑAU DOCTRINIA

AITA GASPAR ASTETEC

ERDERAZ ESCRIBIDUA

ETA GUERO

DON GABRIEL MENENDEZ DE LUARCAC

GAUZA ASCO ERANTZITA ATERA EBANA,

Orain ensquerara hiortuta urteiten dau argitara cerbaist gueyagoturio

LAUDIYOCO ABADE JAUNEN

ENCARGUZ ETA COSTUZ,

DIAR DIRIAN BAIYEZCOACAZ.



*Eta orain seigarrenez imprimidu da.*

BILBON:

**Emeterio Verdes' en etxian**

1909, GARREN URTIAN

Salduten da bere librerian, Correo callian, número 9

Esta CARTILLA es propiedad,  
y será perseguido quien la reim-  
prima.

## SARTZAIYERIA.

Cristiñau fidel guztiyac,  
Dagoz obligadúric  
debociño artutera  
euren biyotz guzturic,  
Jesús gueure arguiyaren  
Curtze santuari:  
Nun il gura izan eban,  
gu ateratiarren,  
gueure pecatuaren,  
ta areriyio gaistoaren  
aguindupetaric.

Orregaitarren bada  
ecandu diar zara  
sarri ciñatutera  
ta santigüetara  
eguinie iru curtze:  
Becoguiyan bata,  
Jaungoicoac librau gaizan  
gogo deunguetaric,  
bigarrena auan,  
Jaungoicoac librau gaizan  
berba deunguetaric:  
guero bularrian,  
Jaungoicoac librau gaizan  
obra-gogo charreric  
onelan esanic  
curtze santiaren +  
señalia gaitic  
gueure + areriyoytaric  
libradu gaguizuz

gueure Jauna, †  
eta Jaungoicoa.

Aitiaren, ta † Semiaren, ta  
Espiritu Santuaren icenian. Amen.

### AITA GURIA

Aita guria ceruetan zagozana: santificadu bedi zure icena; betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatia celan ceruan, alan lurria. Emon eguigu zu gaur egunian eguniango oguiya, eta parcatu eiguzuz gueure zorrac; gueuc gueure zordunai parquetan deutzeguzan leguez: eta ichiez eiguzu tentaciñoan yausten baya libradu gaguzuz gacheriz. Amen.

### AVE MARIYA

Ave Mariya graciyaz betiya, Jauna da zugaz, bedeincatia zara zu andra guztiyen artian, ta bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus. Santa Mariya Jaungoicoaren Ama; erregutu eguizu gu pecatoriyc gaiti, orainta gueure eriyotzaco orduan. Amen.

### CREDOA

Senistuten dot Jaungoico Aita guztiz poderoso ceruaren eta lurraren criyadoriagan, eta bere Seme bacar Jesu Cristo gueure Jaunagan, cein sortu zan Espiritu Santuaren obraz ta graciyaz:

jaiyo zan Mariya Virginia ganic: padecidu eban Poncio Pilatosen aguinduan beian, izau zan curtzificadua; illa ta sepultadua; jatzi zan infernuetara, aric irugarren egunian bistusan zan illen arterie, igon eban ceruetera, an dago yarriric Aita Jaungoico guztiz poderosoaren alde escoan; aric etorrico da biziayac, eta illac juzguetan. Sinistuten dot Espiritu Santuagan. Elexa Santa Catoliquia, Santuen Comuniñoia, pecatuen parca-ciñoia, araguiyaren erresurreciñoia, eta seculaco bicitzia. Amen.

### SALVIA

Salve Erreguiña, ta ama misericordiazcoa, bicitzia ta duluria. Salve esperanza gueuria, Zuri deiyez gagoz cizpuruca, llantu ta negar eguiten dogula negarrezeo erri onetan Ea bada Andria, Abogada gueuria, biyortu eguiuzugugana zure misericordiazco beguiyoc, ta desterru au igaro azquero, eracuscu zu Jesus ceure sableeco frutu bedeincatua. ¡O Clemenciasco Ama! ¡O piadosia! ¡O dulce Virginia Mariya! Erregutu eguizu gu gaitic Jaungoicoaren Ama Santia merecidu daigun alcanteetia Jesu Cristoren promesac. Amen Jesus.



*Jaungoicoaren legueco mandamentuac dira amar: lelengo irurac pertenecietan jatorcاز Jaungoicoaren onriari: eta beste zazpirac progimuaren provechuari.*

Lelengoa. Jaungoicoa ametia gauza guztiyen ganian.

Bigarrena, bere icen santuagaz jumentu alperric ez eguitia.

Irugarena, domecac ta jayac gordetia.

Laugarrena, aita, ta ama onretia.

Bostgarrena, iñor il ez eitia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

Zazpigarrena, iñori, ecer ostu ez eitia.

Zortzigarrena, iñori falso testimonioric ez erreguitia, ta ez guzurric esatia.

Bederatzigarrena, progimuaren senaremazteric ez desietia.

Amargarrena, iñoen ondasunen deseo bidebagacoric ez desietia.

Amar mandamentu onec sartuten dira bitan, Jaungoicoa amau, eta serbitian gauza guztiyac baño gueyago eta progimua gueure burua leguez. Amen.

*Fedeco articuluac dira amalau: lelengozazpirac dira Jaungoicotatasunaren ganian, tabeste zazpirac Jesu Cristo gueure Jaun, Jaungoico, taguizon eguiyazcoaren guizontasun santuaren ganian.*

Jaungoicotatasunaren ganekoac: dira oneec.

Lelengoa, sinistu Jaungoico zuzti poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aita.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistu dala Cryadoria.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala Glorificadaria.

*Guizontasunaren ganecoa dira oneec.*

Lelengoa, sinistu Jesu Cristo gueure Jauna, guizona dan partez, sortua izan sala Espiritu Santuaren obraz, ta graciayaz.

Bigarrena, sinistu jaiyo zala Mariya Virginia ganic, Señora au doncella zala, Semia jaiyo baño lenago, jaiyoqueran, eta jaiyo ezquero.

Irugarrena, sinistu artu ebala eriotzia ta pasiñoia gu pecatariyoc salvetarren.

Laugarrena, sinistu jatzi zala infernuetara eta atera cituzala bere etorrera santuen beguira egozan Guraso Santuen arimac.

Bostagarrena, sinistu irugarren egunian bistu zala illen arteric.

Seigarrena, sinistu igo ebala ceruetara, eta an dagoala jarriric Aita Jaungoico guztiz poderosoaren escoatati.

Zazpigarrena, sinistu aric etorrico

dala biciyac, eta illac juzguetan; onai  
emoiteco gloriya bere mandamentu san-  
tuac gorde cituezalaco: eta deungai  
betico infernua, gorde etiztuezalaco.

*Cristiñau doctriniaren explicaciñoia  
itandu, ta erantzuten dala.*

ITANDUTEN DOT: Cristiñau zara?

ERANTZUTEN DOT: Bai Jauna, Jaungoi-  
coaren graciya gaitic.

I. Cristiñauren icen ori noganic ya-  
tortzu? E. Cristo gueure Jauna ganic.

I. Cer esa gura dau Cristiñaua?  
E. Cristoren gizona.

I. Eta cer esan gura dau Cristoren  
guizona? E. Guizon bat, ceinec daucan  
Jesu Cristoren fedia bautismu santuan  
artu ebana, eta cein dagoan bera serbi-  
yetaco opaturic.

I. Cein da cristiñauren señalia?  
E. Curtze santua.

I. Cegaitic? E. Dalaco Cristo curtzi-  
ficaduaren irudiya, ceinetan erredimi-  
du guenduzan.

I. Ceimbat modutan eguiten dau crisi-  
tiñauac señale ori? E. Bitan.

I. Ceintzuc dira? E. Ciñatutea ta san-  
tigüetia.

I. Cer da Ciñatutea? E. Da eguitia iru-  
curtze esku escoaco orcoroagaz; lelen-  
goa becoquian, bigarrena aoan, iru-

garrena bularrian gueure Jaungoicoagaz berba eguiten dogula. I. Eracutsi celan?

E. Curtze santuaren + señalia gaitic, gueure + areriyoyetaric, libradu gagui-zuz + gueure Jauna, ta Jaungoicoa.

I. Cegaitic ciñatuten zarabecoquian?

E. Jaungoicoac libradu gaguizantzat pensamentu deunguetaric.

I. Cegaitiz aoan? E. Jaungoicoac libradu gaguizantzat berba deunguetaric.

I. Cegaitic bularrian?

E. Jaungoicoac libradu gaguizantzat obra ta deseo deunguetaric.

I. Cer da santigüetia?

E. Da eguitea curtze bat escu escoaco atz biyacaz, becoquiric bularrera, ta ezquerreco sorbaldaric escoacora, ucentean dogula Trinidade guztiz santua.

I. Eracutsi celan?

E. Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren icenian. Amen.

I. Nos eguin biar dozu señale ori?

E. Obra onen bat asten dogun guztiyan. edo tentaciñoren baten, necesidade, edo peligroren baten aurquituten garianian: baita bere, oeric yaiguitorduan, etzeric urteitorduan, elessan sartutorduan, yaten asitorduan eta oera yoatorduan.

I. Cegaitic orren bestebider?

E. Cegaitic denpora, eta lecu guzti-

yeten tentau, eta perseguietan gaituezan gueure arerijoac.

I. Ce arerijo dira orreec?

E. Demoniñoa, mundua, ta araguiya.

I. Bada curtziac bauco orren contra indarric? E. Bai jauna.

I. Nondi dauco curtziac indar ori?

E. Cristoc berian bere eriyotziagaz bencidu cituzalaco.

I. Curtzia adoretan dozunian celan esaten dozu?

E. Adoretan zaituguz Cristo, eta bedinquetan zaituguz ceure curtze santuagaz erredimidu cendulaco mundua.

---

*Cristiñauc yaquin biar dituzan gauzac.*

Ecusi dugu cristiñaua zariana, cristiñauaren iceneti, ta señaleti: Esan eguidazu orain.

I. Ceimbat gauza yaquin, ta entendidu biar dituz cristiñauac uso errazoezcora eltzaiten danian? E. Lau gauza.

I. Ceintzuc dira? E. Lelengoa yaquita cer senistuco daben, bigarrena cer escatuco daben, irugarrena cer egun edo obrauco daben, eta laugarrena cer artu edo errecibiduco daben.

I. Celan yaquingo dau cer sinistuco daben?

E. Yaquinic eta entendiduric credoa edo articulu fedecoac.

I. Celan yaquingo dau cer escatuco  
daben?

E. Yaquinic eta entendiduric Aita gu-  
ria, eta beste Elexa ama Santiaren ora-  
ciñoac.

I. Celan yaquingo dau cer obrauco  
daben?

E. Yaquinic eta entendiduric Jaungoi-  
coaren legueco amar mandamentuac,  
bost Elexacoac, eta obra misericordi-  
yazcoac.

I. Celan yaquingo dau cer erreccibi-  
duco daben? E. Yaquinic eta entendidu-  
ric zazpi Sacramentuac.

---

*Cristiñau doctriniaren lelengo partia,*  
*ceinetan espliquetan dirian Credoa eta*  
*Articulu Fedecoac.*

I. Noc esan eban Credoa?

E. Apostoluac.

I. Cetaraco? E. Guri fede santuco  
gauzac iracasteco.

I. Eta zuc cetaraco esaten dozu?

E. Cristinauoc daucagunfedi-au con-  
fesetaco.

I. Cer da fedia?

E. Icusi eztoguna sinistutia.

I. Icusi cendun zuc yaiyoten Jesu  
Cristo? E. Ez jauna.

I. Icusi cendun ilten edo cerura igo-  
ten? E. Ez jauna.

I. Eta sinistuten dozu?

E. Bai jauna, sinistuten dot.

I. Cegaitic sinistuten dozu?

E. Jaungoicoac alan aguertu deutza-laco Elexa Ama Santiari, ta onec alan iracazten deuzculaco.

I. Ce gauza dira cristiñaua leguez, dau cazuzanac, sinistuten dituzanac?

E. Erromaco Elexa Ama Santiac dau-cazan ta sinistuten dituzanac.

I. Ta certzuc dira orreec? E. Fedeco articuluac, credoan dagozan leguez.

I. Ce gauza dira fedeco articuluac?

E. Dira fedeco misteriyoetaric principalenac.

I. Cetaraco dira fedeco articuluac?

E. Emoiteco ezauera arguiyago bat-gueure Jangoicoaren, eta Jesu Cristo gueure Erredentoriarena.

I. Norda gure Jaungoicoa?

E. Da gauza bat esan eta pensau al leitequianic andiena ta miragarriyena: Jaun bat ecin gueiyagoan ona, poderosa, sabiyoa, justoa, gauza guztiyen principiyoa eta fina.

I. Trinidad guztiz santua nor da?

E. Da Jaungoicoa bera Aitia Semia eta Espiritu Santua, iru persona distinta, eta Jaungoico eguiyazco bacar bat.

I. Aita Jaungoicoa da? E. Bai jauna.

I. Semia Jaungoicoa da? E. Bai jauna.

I. Espiritu Santua Jaungoicoa da?

E. Bai jauna.

I. Iru Jaungoico dira? Ez jauna, ezpada Jaungoico eguiyazco bacar bat.

I. Aita Semia da? E. Ez jauna.

I. Espiritu Santua da Aita edo Semia?

E. Ez jauna.

I. Cegaitic? E. Dierelaco personac bat bestia eztirianac, izan arren Jaungoico eguiyazco bacar bat.

I. Orrelan ceimbat izaite edo naturaleza entendimentu eta borondate dauco Jaungoicoac?

E. Naturaleza bacar bat, entendimentu bat, eta borondate bat.

I. Eta ceimbat persona?

E. Iru distinta, ceintzuc dirian Aita, semia, ta Espiritu Santua.

I. Celan da Jaungoicoa guztiz poderosoa? E. Bere gura izanac bacarric eguiten dabelaco gura daben guztiya.

I. Celan da criyadoria? E. Gauzaguztiyaz eguin cituzalaco ecebere eceric.

I. Eta ceu cetaraco eguin cinduzan Jaungoicoac? E. Bera bicitza onetan ametaco eta serbiyetaco, eta guero gloriyan betico gocetaco.

I. Celan da salvadoria?

E. Graciya emoten dabelaco, eta pecatuac parcatuten dituzalaco.

I. Celan da glorificadoria?

E. Gloriya emoiten deutzalaco bere graciyan ilten danari.

I. Bauco Jaungoicoac, guc leguez gorputcic? E. Jaungoico dan partez, ez jauna, dalaco espiritu purua, baya bai guizon dan partez.

I. Iru personetaric cein eguin zan guizon? E. Bigarrena, cein dan Semia.

I. Aita eguin zan guizon? E. Ez jauna.

I. Espiritu Santua eguin zan guizon? E. Ez jauna.

I. Cein bada?

E. Bacarric semia, ceineri guizon eguin azquero, dericho Jesu Cristo.

I. Orrelan, bada, nor da Jesucristo?

E. Da Jaungoico biciyaren Semia guizon eguin zana, gu erredimiyetarren, eta guri celan bici eracustiarren.

I. Eta ceimbat izaitz edo naturaleza, entendimentu, eta borondate dauco Jesus Cristoc? E. Naturaleza bi, bata Jaungoico dan partez, eta bestia guizon dan partez, entendimentu bi, Jaungoico dan partez bata, eta guizon dan partez bestia; eta borondate bi, bata Jaungoico dan partez eta bestia guizon dan partez.

I. Eta ceimbat persona eta memoriya dauco? E. Persona Jaungoicozco bat bacarric, cein dan Trinidade guztiz Santuco bigarren personia, eta memoriya bat bacarric guizon dan par-

tez, bada Jaungoico dan partez eztau  
riar memoriyaric, gauza guztiaz bere  
aurriān daucazalaco.

I. Cer esan gure dau Jesusec?

E. Salvadoria.

I. Cetaric salvau guinduzan?

E. Gueure pecatuetaric, eta diabrua-  
ren cautiberiyoric.

I. Cer esan gure dau Cristoc?

E. Ungidua.

I. Cegaz izan ungidua?

E. Espiritu Santuaren graciyaz, eta doezi.

I. Cristo gueure Jauna celan sortu  
zan, eta celan jaiyo zan Doncella zan  
amaganic? E. Jaungoicoac ori milagroz  
eguiten ebala.

I. Ce misteriyo dā ori?

E. Encarnaciñoco misteriyoa.

I. Cer sinistuten dozu encarnaciñoco  
misteriyoan? E. Trinidade guztiz Santu-  
co bigarren personia, cein dan Semia,  
guizon eguzin zala Ama Virginianaren errai  
guztiz garbiyetan; ez guizonaren obraz,  
ezpada Espiritu Santuaren birtutez,  
bere doncellatasunaren calte baga.

I. Ceimbat gauza obrau cituzan, ba-  
da Espiritu Santuac Encarnaciñoco  
misteriyoan? E. Lau gauza.

I. Ceintzue dira? E. Lelengoia, formau  
eban gorputz bat Ama Virginianaren Sabel  
Santuan bere odol guztiz garbiyagaz.

Bigarrena, eguiéban Arima bat ece-  
bere eceric. Irugarrena, gorputza ta ari-  
mia batu cituzan alcarregaz. Laugarre-  
na, Trinidade guztiz santuco bigarren  
personiac beragan artu, ta beragaz batu  
cituzan gorputz ta arima oneec, eta  
alan leen Jaungoico baño etzana Jaungoi-  
co izaitia galdu baga gueratu zan guizon  
eguinic; ceineri derichon Jesu Cristo.

I. Eta celan jaiyo zan milagroz?

E. Urteiten ebala Mariya Santisima-  
ren sabeleric, bere doncelletasunaren  
calte bagaric, eguizquiyaren arguiyac  
cristal bateti urteiten daben leguez,  
cristala urratu, ta loitu bagaric.

I. Bere ama guero beti doncella bici  
izan zan? E. Bai jauna, beti.

I. Cegaiti curtzian il gura izan eban?

E. Gu libretarren pecaturic, eta be-  
tico eriyotzaric.

I. Celan bada yausi quintzan betico  
eriyotza orretan? E. Pecatu eguiten eba-  
la Adan, gure lelengo gurasoac, ceine-  
gan guztiyoc eguin guendun pecatu.

I. Bauco Cristoc aitaric, edo amaric?

E. Jangoico dan partez dauco aita, cein  
dan Aita Eternoa, eta eztauco amaric:  
eta guizon dan partez dauco ama, cein  
dan Ama Virginia eta eztauco aitaric.

I. Eta nosic onecoa da Jesu Cristo?

E. Jaungoico dan partez beti beticoa.

Eternoa ta Espiritu Santua leguez; baya guizon dan partez Ama Virginianaren sabel santuan sortu zanic onacoa.

I. Cer derechazu dala á Infernua, ceinetara yatzi zan, il azquero, Cristo gueure Jauna? E. Ez condenaduen lecua, ezpada justoac egozan limboa. I Bada, bago infernu bat baño gueiyago?

E. Bai jauna, lau dagoz luraren biyot, zian: eta derechoe condenaduen Infernua, purgatoriyoa, seiñen limboa, eta justuen limboa, edo Abrahanen senoa.

I. Eta cer dira orrec?

E. Condenaduen infernua da lecu bat, ceinetara yoaten dirian pecatu mortalian ilten dirianac, an tormentu, ta pena artian betico egoteco. Purgatoriyoa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian graciyan ilten dirianen arimac, baya pagau baga guztiz euren pecatuen zorra, an pena icaragarriyacaz garbituac izaiteco. Seiñan Limboa da lecu bat, ceinetara yoaten dirian, uso errazoezcora eldu baño leenago batiatu bagaric ilten dirianen arimac, an beti egoteco Jaungoicoa eguno ecusi bagaric. Eta justuena, edo Abrahanen senoa da lecu bat, ceinetara yaten cirian, Jesu Cristoc gu erredimidu baño leenago, graciyan ilten cirianen arimac, guztiz garbitutaegozanac, eta lecu berbera, ceine-

tara benetan yatzi zan Jesu Cristo.

I. Celan yatzi zan? E. Yatzi zan bere arimia Jaungoicotasunagaz baturic.

I. Eta bere gorputza celangueratu zan?  
E. Baturic Jaungoicotasun beragaz.  
I. Celan biztu zan irugarren egunian?  
E. Batuten ciriala barriro bere gorputz, ta arima gloriaz betia, ostera iños ez ilteco. I. Ce imbat garren egunian igo eban ceruetara? E. Berroguei garren egunian. I. Ce modutan? E. Bere poderiyoz, ta birtudez. I. Cer esan gura dau yarriric egotiac Aita Jaungoico guztiz poderosoaren alde escoan?

E. Jesucristoc Jaungoico dan partez daucala gloriya bardina Aitagaz, ta Espiritu Santuagaz: eta guizon dan partez beste guztiyac baño gueyago.

I. Nos etorrico da biciyac, eta ilac juzguetan? E. Munduaren acabuan.

I. Eta orduan biztuco dira il guztiyac?  
E. Bai jauna, leen cituezan gorputz, ta arima eurecaz.

I. Eta munduaren acabua baño lee nago juzhaduac izango gara?

E. Bai jauna, guztiyac ilten dirianian juzgadu, ta sentenciaduco dituz Jaungoicoac: onac Ceruco gloriya gocetara, eta deungac betico penac padecietara Infernuan. I. Nor da Espiritu Santua?

E. Trinidadé guztiz Santuco irugar-

ren Personia: Aita ta Semia leguez Jaungoico eguiyazcoa dana.

I. Cer sinistuten dozu esaten dozunian: sinistuten dot santuen comuniñoa?

E. Critiñau fielac dauquiela parte batac bestien obra onetan, gorputz batzen zatiyac leguez, cein dan Elexia.

I. Cer da Elexia?

E. Da cristiñau fiel guztiyac batera eguiten dauden gorputz, ceinen burua da Aita Santua. I. Nor da Aita Santua?

E. Da Sumo Pontifice Erromacoa, Cristoren Vicariyo, edo mundu onetan ceineri guztiyoc obediu biar deutsagun.

I. Cer esan gura dau pecatuen paracciñoac?

E. Elexa Santan dagozala pecatuac parquetaco mediyoac, ceinzuc dirian Sacramentu Santuac.

I. Cer esan gura dau araguiyaren erresurreciñoiac?

E. Judiciyoco egunian guztiyoc biztuco gariala orain daucaguzan gorputz, ta arima eurecaz: artzaiteco bacochac merecidu daben aloguera, edo castigua.

I. Ceresangura dau seculaco bicitziac?

E. Bicitzau acabau azquero, izango dala beste betico bat, edo iños acabauco dan arte guztiyan, onac Ceruan glo-riya gocetan eta deungac Infernuan pena icaragarriyad padečietan.

I. Credoa, ta Fedeco Articuluez ganeti beste gauzaric sinistuten dozu?

E. Bai jauna, Escritura Santan dagoana, eta Jangoicoac bere Elexiari aguertu deutzan guztiya.

I. Ce gauza dira orrec?

E. Ez ori itandu niri, nasalaco yaquituriya bagacua: Doctoriac dituz Elexa Ama Santiac erantzuten yaquingo daudeenac.

M. Ondo diñozu: bada Doctoriai yagoque, ta ez zuri, gure federatuco gauza guztiyen contu emotea: zuretzaco asco da Articuluena, Credoan dagozan leguez emotia.

*Cristiñau Doctriniaren bigarren partia, ceinetan espliquetan dan cer escatu biar dan; eta Elexa Ama Santia-ren oraciñoac.*

Icusi dogu celan daquizun cer sinistu biar dozun cein dan lelengoa: gatozan bigarrenera, cein dan cer escatu biar dan yaquitia.

Esan eguidazu:

I. Noc esan eban Aita guria?

E. Jesu Cristoc. I. Cetaraco?

E. Guri oraciño eguiten iracasteco.

I. Cer da oraciño eguitia?

E. Da Jaungoicoa gana biyotza ereguitia, ta berari mesediac escatutia.

I. Ceimbat modutacoa da oraciñoa?

E. Bitacoa. I. Ceintzue dira?

E. Gogoagazcoa, edo mentala; eta aoagazcoa edo bocala.

I. Cer da oraciño mentala?

E. Da arimaco sensun, edo potenciayacaz eguiten dana: memoriyagaz gogora gauza onen bat ecarten dogula: entendimentuagaz gogoan gauza ori darabilgula, ta bere ganian pensetan dogula: eta borondatiagaz, afectoac eta deseo santuen frutu onac ateraten doguzala: contu daigun, pecatuen gorrotoa, humiltasuna, etc., edo gogo onen batzuc artzaiten doguzala, celangoac dirian, ondo confesetaco, bicitzia obatuteco, edo besteren batzuc. I. Cer da oraciño bocala? E. Da berbacaz eguiten dana, celangoa dan eguiten doguna Aita guria esaten dogunian.

I. Eta celan eguin biar da oraciñoa?

E. Atenciñoagaz, humildadiagaz, confianciagaz, eta perseberanciyagaz.

I. Aita guria esaten dozunian nogaz berba eguiten dozu?

E. Gueure Jauñ eta Jaungoicoagaz.

I. Non dago gure Jaungoicoa?

E. Lecu guztiyetan, especialmente ceruan, eta Santisimu Sacramento Altaracoan. I. Eta Jesu Cristo non dago?

E. Jaungoico dan partez lecu guzti-

yetan, eta guizon dan partez bacarric dago ceruan eta Santisimo Sacramen-  
tu Altaracoan.

I. Cein da oraciñoen artian onena?  
E. Aita guria. I. Cegaitic? E. Cristoc bere aoti esan ebaleco, Apostoluac es-  
catuta. I. Cegaitic gueiyago? E. Dauca-  
zalaco zazpi escari caridadeti datoza-  
nac. I. Ceintzuc dira? E. Lelengoa da  
santificadu bedi zure icena.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?  
E. Jaungoicoaren icena izandila ezau-  
tua, eta honradua mundu guztian.

I. Cein da bigarrena?  
E. Betor gugana zure erreinua.  
I. Cer escatuten dozu escari orretan?  
E. Erreinau daiyala Jaungoicoac gure  
arimetan emen lurrian graciyaz, eta  
guero emon daigula gloriya.

I. Cein da irugarrena?  
E. Eguin bedi zure borondatia celan  
ceruan, alan lurrian.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?  
E. Eguin daigula Jaungoicuaren bo-  
rondatia lurrian gagozanoc, ceruan  
dagozanac eguiten daudeen leguez.

I. Cein da laugarrena?  
E. Emon eguiuzu gaur gueure egui-  
nian eguniango oguiya.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?  
E. Emon daigula Jaungoicoac gorput-

zeraeo mantenimentua, eta arimaco graciya ta Sacramentuac.

I. Cein da bostgarrena?

E Parcatu eguiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunaiz parquetan detseguzan leguez.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jaungoicuac parcatu deiguzala gueure pecatuac, gueuc parcatu deutsegun leguez, gach eguin deuscuenai.

I. Cein da seigarrena? E. Ichi ez eigu zu tentaciñoan yausten.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jaungoicoac ezteigula ichi yausten ez consentietan pensamentua tentaciño deunguetan, ceintzuaz demoniñoac pe- catuen yausi eraguin gura deuscun.

I. Cein da zazpigarrena?

E. Baya libradu gaguizuz gacheric.

I. Cer escatuten dozu escari orretan?

E. Jaungoicoac libradu gaizala arima- co ta gorputzeco gacha, eta peligru guz- tiyetaric.

I. Cegaitic diñozu asquieran, *Aita gu- rria Ceruetan zagozana?*

E. Jaungoicoagana biyotza ereguiteco, ta escatuteco mesediac humildadiagaz ta confianziagaz.

I. Cer esan gura dau acabuan esaten dozun berbiac: *Amen?*

E. Alan izan deila.

I. Ceintzuc dira Ama Virginiori esaten deutsazuzan oraciñoric onenac?

E. Ave Mariya, eta Salvia.

I. Noc esan eban Ave Mariya? E. Angueru San Gabrielec Ama Virginiori barri onac emoitera etorri zanian. I. Noc esan eban Salvia? E. Elessa Ama Santiac dauco beretzacoat artuta. I. Cetaraco? E. Ama Virginiori mesediac escauteco. I. Ave Mariya edo Salvia esaten dozunian, nogaz berba eguiten dozu? E. Ama Virginioriagaz.

I. Nor da Ama Virginia?

E. Da Señora bat birtutez eta graciyaz betia, Jaungoicuaren Ama eta Ceruan dagoana.

I. Eta altaran dagoana, nor da?

E. Da Ceruan dagoanaren imagina eta irudi bat.

I. Cetaraco dago an?

E. Guri acordarazoteco Ceruan dagoana, eta bere imaginia dalaco, erreberenciya eguin daiyoguntzat.

M. *Bada beste aimbeste eguin biar deutsezu beste Santuen imaginai eta gorpu-zatiyai bere.*

I. Eguin biar deutsegu oraciño Angueruai, eta Santuai bere? E. Bai jauna, gueure bitartekoai leguez.

I. Ce gauza dira Angueruac?

E. Dira Ceruan Jaungoicoa gocetan

dagozan, Espiritu zoriyoneco batzuc.

I. Cetaraco eguiñicituzan Jaungoicoac?

E. Bera beti alabadu ta bedeincatu daguiyentzat.

I. Cetaraco gueiyago?

E. Bere Ministroac leguez Elessa gobernateco, eta guizonac yagoteco.

I. Orlan zuc bere baucazu zure Angueru guardacoa?

E. Bai jauna, baucat, eta bacochac dauco beria.

M. *Bada artu eguiyo zu debociño andibat, eta egunian egunian encomendau zaquiyoz.*

---

*Irugarren partia, ceinetan espliquetan dan cer eguin, edo obrau biar dan.*

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu, ta cer escatu biar dozun: dacusgun orain celan daquizun cer obrau biar dozun.

I. Esan egiztu: cein da Jaungoicoaren legueco leiengo Mandamentua?

E. Jaungoicoa ametia gauza guztiyen ganian.

I. Noc ametan dau Jaungoicoa?

E. Bere Mandamentuac gordetan dituzanac.

I. Cer da Jaungoicoa ametia gauza guztiyen ganian?

E. Gurago izaitia gauza guztiyac galdu bera ofendidu baño. I. Cetara gueiyago obliguetan gaituz Mandamentu onec? E. Bera bacarric adoretara gorputzeco ta arimaco erreberenciya guztiyagaz, beragan sinistu ta esperetan dogula fe-de biciyagaz.

I. Noc eguiten dau pecatu onen contra? E. Idolو edo Jaungoico falsoac adoretan edo sinistuten dituzanac: fediaren contraco gauzaren bat sinistuten dabenac: edo fedeco misteriyo santuren bat-en dudetan dabenac: edo doctrinia biar dan leguez eztaquiyenac: Fedeco, Esperanzaco ta Caridadeco actoac eguin biar dirianetan, eguiten eztituzanac: Jaungoicoagan biar dan esperanza galzaiten labenac: edo Sacramenturen bat dispo-cicioño charragaz artzaiten dabenac.

I. Noc gueiyago? E. Aztuen contuac ta barri emonac sinistuten dituzanac: eta sorguinqueriyac, edo beste onelaco didebagaco gauzaren batzuc eguiten dituzanae. I. Cein da bigarrena? E. Bere icen santuagaz juramentu alperric ez eguitia. I. Noc eguiten dau juramentu alperric?

E Juramentu eguiten dabenac egui-ya bagaric, justiciya bagaric eta nece-sidade bagaric. I. Cer da juramentu eguiya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia guzurragaz,edo batec uste daberen contra.

I. Eta ce pecatu da juramentu eguiya bagaric edo dudiagaz eguitia?

E. Pecatu mortala, jauna, juramentua gauza chiquer baten ganian bada bere.

I. Eta iñori on eguitarren, edo iñoc erregututa, eguin lei, guzurragaz juramentu? E. Ez da mundu guztiya gaiti bere. I. Cer da juramentu justiciya bagaric eguitia?

E. Da juramentu eguitia gauza gaisto edo charren bat eguingo dala; contu daigun, progimuaren gachen bateguingo deutsala. I. Eta ce pecatu da justiciya bagaric juramentu eguitia?

E. Pecatu mortala, gauza charra pisuzcoa bada: eta arina bada, pecatu beniala. I. Cer da juramentu necesidade bagariz eguitia?

E. Da juramentu eguitia, eguin biar andibagaric, edo ecerezqueriyac gaitic.

I. Eta ce pecatu da ori?

E. Pecatu beniala, faltau ez azquero juramentuaren eguiyac.

I. Eta gauza onen bat eguiteco juramentu, voto, edo promesa daucanac cumplidu biar dau?

E. Bai jauna, eta ez cumplietia, edo lar luzatutia da pecatu mortala, gauza pisuzcoaren ganian izan azquero.

I. Eta pecatu da criyaturac gaiti juramentu alperric eguitia?

E. Bai jauna, euretan euren Criyadioriari juramentu eguiten yacolaco.

I. Ce modutan eguiten da juramentu criyaturac gaitic? E. Esaten dala, contu daigun, neure arimia gaitic, cerua gaitic, lurra gaitic etc., au alanda.

I. Ce erremediyo dago juramentu alperric ez eguiteco?

E. Artutia usua esateco bai, edo ez, Cristoc iracasten deuscun leguez?

I. Eta mandamentu onetan eragozten da beste gauzaren bat gueiyago?

E. Bai jauna, eragozten da blasfemia bere, cein eztan besteric, ezpabere berba otsabacoren batzuc Jaungoicoaren, edo bere santuen contra esatia; eta da pecatu mortala. I. Cein da irugarrena? E. Domecac eta yaiyac gordetia. I. Noc gordetan dituz yaiyac?

E. Meza osoa enzun eta biarric eguiten ez dabenac necesidade baga euretan. I. Eta ce pecatu da yai egunetan necesidade bagaric biar eguitia?

E. Pecatu mortala, ordu biz gora eguiten bada, eta aez beeria bada pecatu beniala gueiyen partez.

I. Cein da laugarrena?

E. Aita eta ama onretia.

I. Noc onretan dituz gurasoac?

E. Obedecidu, socorridu, eta erreberenciyetan dituzanac.

I. Noc eguiten dau onen contra pecatu mortala?

E. Etzeco gobernuko, eta aciyera oneco gaucetan gurasoen esanic eguin gura eztaudeen humiac: euren necesidadetan socorridu, edo lagundu gura ezteutseenac; birao, barre edo burla eguiten deutseenac; escua eranci, edo cematuten dituezanac; eta euren conseju ta bayezcoa bagaric ezcontzaraco bidiac artzaiten dituezanac. I. Nortzue besteric sartzaiten dira gurasoen iceñian? E. Nagusiyagoac edadian, dignidadian eta gobernuan. I. Eta mandamentu onetan sartzaiten dira humiac euren gurasoen alderaco dauquiezan obligaciñoac baño gueiyago?

E. Bai jauna, nagusiyagoac euren azpicoen alderaco, eta gurasoac euren humien alderaco dauqueezanac bere.

I. Eta ceintzuc dira orrec?

E. Emoitia yan, edana, doctrina ona, egemplu ona, eta bere demporan ondo yagoquian estadua. I. Eta ce pecatu da orreetan faltetia? E. Gueiyen partez, pecatu mortala. I. Cein da bostgahrena? E. Iñor il ez eitia I. Cer aguinduten da mandamentu onetan? E. Ez iñori gachic eguitia, ez obraz ez berbaz

eta desioz bere. I. Noc eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra? E. Bere buruari edo progimuari eriyotzia, edo beste gach andiren bat desietan deutsenac, edo norbera il, eredu, edo manatuten dabenac ordituten danac: osasunian gach andiya eguingo deutseen gauzac yaten dituzanac; bere burua il, edo peligruan iminten dabenac, eta norberari, edo besteri birao eguiten deutsenac.

I. Cer da birao eguitea? E. Da batec, edo norberen buruentzaco, edo besterentzaco gachen bat escatutia.

I. Eta ce pecatu da birao eguitia?

E. Pecatu mortala, jauna, gach andiren desioagaz eguiten bada; eta alango desio bagaric bada, pecatu beniala, beti ez arren. I. Nortzue, bada, eguiten daudee pecatu mortala alango desio bagaco biraoacaz?

E. Gueiyen partez gurasoac, eta nagusiyenac, euren azpicoen aurrian birao eguiten daudeenac; eta birao eguiteco ecandua dauquienac, echiteco aleguinac eguiten ezpadituez. I. Eta cegaitic ori? E. Cegaitic euren esate, ta egemplu deungacaz emoiten deutseen bestiai Jaungoicoa offendietaco bida, ceineri derichon scandalua. I. Cein da seigarrena? E. Araguizco pe-

caturic ez eguitia. I. Cer aguinduten da mandamentu onetan? E. Izan gaitazala castoac, etargaviyac pensamentuetan, berbetan, eta obretan. I. Noc eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra? E. Ezauquera osoagaz pensamentu loiyetan gustu artzaiten dabenac, obrazco gauzaric eguiteco gogoric euqui ez arren, gauza loiyac cantau esan edo gustuz entzuten dituzanac; eta norberagaz edo bestegaz escuca loiyac edo gauza desonestuac dauquezanac, edo euqui gura dituzanac. I. Cein da zazpigarrena? E. Iñori ecer ostu ez aitia. I. Cer aguinduten da mandamentu onetan? E. Ez quendu, ez 'euqui, ta ez gura izetia besteren gauzaric, yaubia-ren borondatiaren contra.

I. Noc eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra?

E. Gauza oneetaric edocein eguiten-dabenac, edo beste moduren baten progimuari bere ondasunetan calte andiya eguiten deutsanac.

I. Eta progimuari bere ondasunetan dan moduan dala, calte eguiten deut-sanac, ce obligaciño dauco? E. Dauco obligaciño ostua gustiyen errescata albait leen eguiteco I. Cein da zortzi-garrena? E. Iñori falso testimoniorie ez ereguitia, ta guzurric ez esatia. I. Cer

aguinduten da mandamentu onetan? E. Ez progimua gaitic juzgu charrie arin eguitia, eta bere faltac ez esan, ta ez entzutia. I. Noc austen dau mandamentu au? E. Errazoe andi bagarie juzgu deunguia eguiten dabenac, creitua quendu, secretoa aguertu, edo guzurra esaten dabenac.

I. Eta ce obligaciño dauco progrmuari creitua quentzaiten deutsanac, esaten dabela bera gaitic eguin eztaben pecaturen bat, edo eguin badau bere, zabal ez dabilena, edo aurpeguira bere faltac ezarten deutsazanac?

E. Dauco obligaciñoa lengo moduan iminteco galdu eraguin deutsan creitua, edo estimaciñoa.

I. Cer eragozten da bederatzigarren, eta amargarren mandamentuetan?

E. Araguizco atseguinen, eta iñoren ondasunen desio bide bacoac.

M. Esan eguijuz Elexa Ama Santia-ren mandamentuac.

*Elexa Ama Santiaren mandamentuac  
dira bost.*

Lelengoa, meza osoa entzutia dome-ca, ta jaiyetan. Bigarrena, urtian bein edolabere confesetia edo leenago eriyotzaco peligruric badago, edo comulgauco bada. Irugarrena, Pascua Erresurrecioñocoetan comulguetia.

Laugarrena Elexa Ama Sentiak aguiñduten dabenian barau eguitia.

Bostgarrena amarrenac, eta primiciyac Elexa Ama Santiari paguetia.

I. Cetaraco dira mandamentu onee?

E. Jaungoicoaren leguecoac obeto gordetako. I. Eta lelengora, cein da meza entzutia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Uso errazoezcora eldu dirian Cristiñau guztiyac.

I. Eta celan entzun biar da?

E. Atenciñoe, errespecto, eta debociñoe andiyagaz; Cristoren paciño santuan, edo beste gauza onen baten pensetan dogula; edo debociñoz erregetan dogula. I. Eta ce pecatu eguiten dau motivo, edo errazoe on bagaric meza entzuten eztabenac, edo meza guztiyan edo zati andiyan atenciñoe baga dagoanac, edo mezia uts eguiteko peligruan yarten danac? E. Pecatu mortala.

I. Eta bigarrena, ta irugarrena ceintzuc dirian confesetia, ta comulguetia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Uso errazoazcoa dauqueen cristíñau guztiyac. I. Eta deungaro confesetan ta comulguetan dirianac, gordetan dituez mandamentu orreec? E. Ez jauña, eta confesiño, ta comuniño bacockian eguiten dituez pecatu mortal bi.

I. Eta ilteco peligruan confesore bagaric ecusten danac, cer eguin biar dau?

E. Contriciñozco acto bat, confestaco gogoagaz.

I. Eta laugarrena, cein dan barau eguitia, nortzuc dagoz obligauric?

E. Ogueta bat urte cumplidu daudeenac. I. Eta celan eguin biar da barau?

E. Egüerdiyan, eragotzi baco yanariyacaz, bazcari bacar bat eguiten dala.

I. Eta onetan faltau bagaric goisian ecer artu lei?

E. Bai jauna, artu lei ontza bat leguez motivo arinen bat badago.

I. Eta gaubian cer artu lei?

E. Artu ley colaciñoan conciyenciya oneco gente artian usetan dana.

I. Eta motivo edo errazoe on bagaric barau eguiten eztabenac, ce pecatu eguiten dau? E. Pecatu mortala.

I. Eta nortzuc dagoz obligauric vigiliya, ta barau egunetan oquelaric yan ez eiten; euretan oquelia ta pesca gauzia nastian yatordubaten yan ez eiten: eta arrauntzaric, ta esne gauzaric garizuman, bulda bagaric, yan ez eiten? E. Uso errazoezcoa dauquen guztiyac.

I. Eta ce pecatu eguiten daudee gordetan eztituezanac?

E. pecatu mortala orreetaricoren bat austen daudeen bacochian.

*Misericordiyazco obrac dira amalau.*

Zazpi espiritualac, edo arimacoac,  
eta beste zazpi corporalac edo gorput-  
cecoac.

*Espiritualac dira oneec.*

Lelengoa, eztaquianari iracastia.

Bigarrena, biar dabenari conseju ona  
emoitia.

Irugarrena, erratuten dabena zucen-  
dutia.

Laugarrena, injuriyac parcatutia.

Bostgarrena, triste dagoana consoletia.

Seigarrena, progimuaren faltac ta ar-  
galtasunac paciyenciyaten eroatia.

Zazpigarrena, biciyac, ta ilac gaitic  
Jaungoicoari erregututia.

*Corporalac dira oneec.*

Lelengoa, gaisoac bisitetia.

Bigarrena, gosi danari yaten emotia.

Irugarrena, egarri danari edaten emoi-  
tia.

Laugarrena, cautiboac errescatutia.

Bostgarrena, billosac yancitia.

Seigarrena, pobre bidestiyai ostatu  
emoitia.

Zazpigarrena, ilai lurra emotia.

I. Cegaitic deriche misericodiyaz-  
coac? E. Justiciyaz zor eztirialaco.

I. Nos obliguetan daudee pecatuaren  
beian?

E. Guizon yaquintsuen erechiyan necesidade andiya dagoanian.

I. Eta cer alcancetan dau batec misericordiyazco obra oneecaz, ta eguiten dituzan beste obra.onacaz, nai aguinduac diriala, nai borondatezcoac?

E. Jaungoicoaren graciyan badago, merecietan dau arimaco graciya, eta ceruco gloriya gueiyagotutia; paguetan dituz bere pecatuen zorrac, eta alcancetan dituz Jaungoicoaganic ondasun andiyac, alan bere ariman, cein bere gaucetan, convenietan bayacaz.

I. Cegaitic diñozu Jaungoicoaren graciyan badago?

E. Cegaitic pecatu mortalian batec eguiten dituzan obra onacaz ecin merecidu lei ta ecin pagau lei pecatuen zorric; ta bai bacarric alcanzau leiz edoelanbere, Jaungoicoaganic mesederen batzuc.

---

*Laugarren partia, ceinetan espliquetan diriran artu biar dirian Sacramentuac.*

Ecusi dogu celan daquizun cer sinistu, cer escatu, ta cer obrau biar dozun. Dacusgun orain celan daquizun cer erreccibidu biar dozun; cein dan azquenengoa.

*Esan eguiuz Sacramentuac.*

*Elexa Ama Santiaren sacramentuac.*

dira. zazpi: lelengo bostac dira biar biarrac izatez edo borondatez, ceintzuc baga ecin salvau leiteque guizona echiten badituz desprecioz: beste biyac dira borondatezcoa.

Lelengoa, Bautismua.

Bigarrena, Confirmaciñoa.

Irugarrena, Peñitenciya.

Laugarrena, Comuniñoa.

Bostgarrena, Estremaunciñoa.

Seigarrena, Ordia.

Zazpigarrena, Metrimoníoa.

I. Ce gauza dira Sacramentuac?

E. Dira señale agiri batzuc, Jesu Cristo gueure Jaunac eguin, ta imini cituzanac, euren mediyoz emoiteco guri bere graciya, ta birtutiac.

I. Cer da graciya? E. Da izaite Jaungoicozco bat, ceinec eguiten daben guizona Jaungoicoaren seme, ta ceruco herederu. I. Eta celan dericho graciya oneri? E. Santificantia, edo santututen dabena. I. Eta bagoz onez ostian beste graciya moduren batzuc? E. Bai jauna, bagoz beste batzuc, ceintzuei derichee graciya lagungarriyac, eta arimaco arguialdiyac, ceintzut bagaric ecin asi, ez aurrera eroan, ta ecin acabau guiñaiquian salvaciñoraco gauzaric. I. Eta oneec cer dira? E. Jaungoicoac pecatuen yausi ez eiteco, eta

obra onac eguiteco emoiten deusczuan socorru, edo laguntasun batzuc, celangoac dirian sermoiac, ejemplu onac uste baco eriyotzac, eta argui-aldi batzuc, ceinzucat Jaungoicoac arguituten dituzan gure entendimentuac; eta desio santu batzuc, ceintzuaz bizcortutent dituzan oneraco gure borondatiac.

I. Ce birtute emoiten daudee Sacramentuac graciayaz batera? E. Principalenac dira iru, Teologalac eta Jaungoicozcoac. I. Ceintzuc dira? E. Fedia, Esperantzia ta Caridadia.

I. Cer da Fedia? E. Icusi eztoguna sinistutia Jaungoicoac alan aguertu dabelaco. I. Cer da Esperantzia? E. Esperetia ceruco gloriya, Jaungoicoaren graciya, eta gueure obra onac diriala remediyio. I. Cer da Caridadia? E. Jaungoicoa ametia gauza guztiyen ganian eta progimuac gueure burua leguez, euracaz eguiten dogula, eurac gueugaz eguin daguiyen guraco gueunquian leguez.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Bautismuoa?

E. Quentzaiteco pecatu originala, ta beste, batiatuten danagan aurquituten dan edocein.

I. Cer da pecatu originala?

E. Da araco pecatua, ceinegaz yai-

yotén garian guztiyoc, eta yatorcun  
gueure lelengo gurasoetaric.

- I. Nondi sartzaiten da Elexara?  
E. Bautismu santuti.  
I. Eta bago Cerurie batiatu eztiria-  
nentzat? E. Ez jauna.  
I. Bada nora doaz batiatu bagaric  
ilten diria seinchuac? E. Limbora,  
I. Eta ce pena dauquee lecu atan?  
E. Eztauquee sentiduko penarie in-  
fernukoac leguez: baya bai Jaungoicoa-  
ren arpeguiya iños ecusi ecina.  
I. Olan pecatu andiya da seiñari bau-  
tismua galerazotia? E. Bai jauna, nor-  
beren erruz izan azquero. I. Nortzuc  
euqui daroe, bada, onetan errua? E. Cer-  
baist eguiten daudeenac sortuta da-  
goan seinchua galzaiteco, eta bardin  
onetaraco conseju deunguia emoiten  
daudeenac. I. Celango pecatu da au?  
E. Cerura guedar eguin daroan pecatua  
eta Jaungoicoac aserre castigau daroi-  
ana.  
I. Norzuc gueiyago euqui daroe one-  
tan errua? E. Yarten dirianac sabelian  
dauqueen seiña galzaiteco peligruan.  
I. Noc-batiatu lei seiña ilteco peli-  
gruan dagoanian?  
E. Edoceinec, ondo batiatuten ya-  
quin azquero.

I. Celan ondo batiatuten da?

E. Ezarten yacala seíñari ura, albale-di burura, ezpabere gorputzeco zatiric andiyenera, eta ura ezartorduan esaten diriala, batiatuteco adiagaz, berba onec: *Nic batiatuten zaitudaz Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren icenian. Amen.*

I. Eta cer eguin biar da seiña yaiyoten bada il echuriagaz, edo eceri eraguiten ezteutsala? E. Batiatu badeezpadan, ustelduta urten ezpadau, eztalaco ilic dagoanen señale ciertua movimenturic ez eguitia: ta esaten da alangoan: *Bici bazara: Nic batiatuten zaitudaz Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ice-nian. Amen.* Eta bota ura berbacaz batera.

I. Eta cer eguingo da galzaiten, edo botetan dan seiña bada dempora bacoa ta guztiz chiquerra? E. Batiatu ardura baga, ura ezarten yacala berbacaz batera, leen esan dan moduan.

I. Cetaraco da Sacramentu santu Confirmaciñocoa? E. Confirmetaco, eta indartuteco bautismu santuan artu guendun fedian.

I. Eta uso errazoezcora eldu danac ce pecatu eguiten dau Sacramentu au pecatu mortalian artzaiten dabela?

E. Pecatu mortala.

I.. Bada cer eguingo dau pecatu ez  
eguiteco? E. Confesau ondo leenago.

I. Cetaraco da Sacramentu santu  
Penitenciyacoa? E. Batiatu azqueroco  
pecatuac parquetaco.

I. Ce pecatu dira orrec?

E. Mortalac, eta benialac bere bay.

I. Cer da pecatu mortala? E. Da esa-  
tia, edo gura izatia cerbaist Jaungoicoa-  
ren leguiaren contra gauza pisuzcoan.

I. Cegaitic dericho mortala? E. Ilten  
dabelaco eguiten daberen arimia.

I. Celan ilten dau? E. Graciaren bi-  
citzia quenduta.

I. Eta nos artzaiten dogu Sacramen-  
tu Penitenciyacoa? E. Ondo confesadu  
ta ausoluciñoia artzeiten dogunian.

I. Eta ceimbat gauza biar dira ondo  
confesetaco? E. Bost, jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa, esamina concienciya-  
coa eguitia. Bigarrena, artzaitia damu  
eguiyazeo bat Jaungoicoa ofendidu da-  
belaco. Irugarrena, euquitia propositu  
firme bat pecaturic gueiyago ez eguite-  
co. Laugarrena, Confesoriari bere peca-  
tu guztiyac artez esatia. Bostgarrena,  
Confesoriac emoiten daben penitenciya  
cumplietaco gogoa artzaitia.

I. Cer da esamina concienciyaacoa?

E. Leen ondo confesau zanic, eta

artian eguin dituzan pecatuac memoriar yara ecartia. I. Nondi eguiten da esaminia? E Jaungoicoaren legueco mandamentuetati, bost Elexacoetati, eta obra misericordiyazcoetati; contua ateraten dabela batec mandamentu bacochian cetan utz eguin daben, obraz, berbaz pensamentud, edo desioz; beguiratuten dala norberen bicimodu, oficiyo, eta estaduco obligaciñoetara bere, escatu azquero leenago Jaungoicoari norberen pecatuac ezaututeco arguiya. J. Ceimbait modutacoa da damua? E. Bitacoa. I. Ceintzuc dira? E. Contriciñozcoa, edo amodiyozcoa: eta atriciñozcoa edo bildurrezcoa. I. Cer da contriciñozco damua? E. Da sentimendu, pena, edo damutasun eguiyazco bat, pecatariac bere biyotzian artzaiten dabena, Jaungoicoa ofendidu dabelaco izanic ain ona: proposituagaz confesetaco, emendetaco, eta cumplietaco penitenciya.

I. Cer da atriciñozco damua? E. Da sentimendu, pena edo damutasun eguiyazco bat pecatariyac bere biyotzian artzaiten dabena, Jaungoicoa ofendidu dabelaco, edo infernuaren bildurrez, edo pecatuaren ezaintasuna gaitic, edo graciya, eta gloriya galdu dabelaco; proposituagaz confesetaco, emendetaco eta cumplietaco penitenciya.

I.. Eta damu biyoetaric cein da onena? E. Contriciñozcoa. I. Cegaitic? E. Contriciñozcoa amore garbiti datorrelaco, atriciñozcoa barriz, bildurreti, contriciñozco damuagaz, confesau baño leenago, parcatuēn yacaz bateri pecatu mortalac, eta yarten da Jaungoicoaren graciyan: baya atriciñozco bacarragaz ez, confesiñoagaz batera ezpada. I. Eta damu biyoetaric cein euqui biar da ondo confesetaco? E. Gueiyenac esaten daudee atriciñozcoaasco dala; baya obeto eta seguruago da contriciñozcoa eroatia: eta au euquitiarren eguingo dau confesetan danac. I. Eta nos euqui biar da damua? E. Confesoriac ausoluciñoa emon baño leenago. I. Cer da propositua? E. Da gogo firme bat secula gueiyago Jaungoicoa pecatu mortalagaz ez ofendietaco. I. Cer da aozco confesiñoa? E. Da esatia Confesoriari pecatu mortal guztiyac, engañu bagaric, ta guzur bagaric. I. Eta pecatu mortalen bat confesatzagaric echiten dabenac, confesiño ona eguiten dau? E. Echiten dabau lotsaz, bildurrez edo esamina faltaz, ez Jauna; baya bay aiztuta echiten badau, edo bere erru bagaric. I. Eta acordetan bayaco guero, cer eguin biar dau?

E. Urrengo confesiñoan confesau.  
I. Eta pecatu mortalen bat lotsaz confesau bagaric ichi dabena, salvau leiteque penitenciya eguinda? E. Ez jauna, santuac baño penitenciya gueiyago balegui bere, confesetan ezpadau pecatua.  
I. Eta bago confesoriac ausolbidu ecin leiyan pecaturic? E. Ez, jauna, bada guztiyentzaco topauco dau erremedyoa bacochac bere erriyan, Erromara bagaric. I. Eta ondo confesetan dira euren pecatuac guichitura, edo edertuta leguez esaten dituezanac? E. Ez, jauna, esan biar dirialaco dauquen gaistotsun guztiyagaz eta concienciyac eracusten daben leguez. I. Eta confesetan danac damu bagaric, propositu bagaric, edo penitenciya cumplietaco gogo bagaric, confesiño ona eguiten dau? E. Ez, jauna, eguiten dau, bai, sacrilegiyozco pecatu mortal andi bat; eta barriro confesau biar dituz esan cituzan pecatu guztiyac, eguin eban sacrilegiyoaz-coagaz batera.

I. Eta norzuc eguin daroez euren confesiñoac damu bagaric, eta propositu bagaric?

E. Ocasiñoetaric apartetan eztirianac, eta emendiyoric eztauqueenac.

I. Eta damu eguiñazcoa, eta propositua, artzaiteco cer eguin biar da?

E. Confesetara yoan baño leenago Jaungoicoari escatu, arren lagundu dagueyola; gogora ecarri bere magestadiac eguin deutsazan mesediac, edo bere pasiño, ta eriyotzia, edo bere ontasun parebacoa, eta biyotzeric ascotan esan acto contriciñozcoa. I. Cer da penitenciya edo satisfaciñoa? E. Da paguetia pecatuac gaitic zor dan penia, cumplietan dala confesoriac emonico penitenciya. I. Eta penitenciya cumplietan eztabenac eguiten dau confesión ona? E. Confesoriac emoten deutsanian badauco cumplietaco gogoa, bai jauna, baya confesoriac emoten deutsanian ezpadauco cumplietaco gogoric, ez jauna: guero cumplidu arren bere. I. Eta ce pecatu da penitenciya ez cumplietia edo lar luzatutia? E. Pecatu mortala, jauna, pisuzcoa bada penitenciya ori. I. Eta pecatuac gaitic zor dan penia ecin pagau lei penitenciagaz ezpada? E. Bai jauna, paguetan da Jaungoicoaren graciyan eguiten dirian abra on gustiyacaz.

I. Cer dira Indulgenciyac?

E. Dira graciya batzuc, ceinen bitartez parcatuten dan, mundu onetan, edo purgatoriyoan, pecatuac gaitic pagau biar dan penia.

I. Eta celan irabacico dira?

E. Eguiten diriala estadu graciayazcoan aguinduten dirian gauzac.

I. Eta Purgatoriyyora doazanac, pagau eztaudeelaco mundu onetan euren pecatuen zorra, guc socorridu guiñaiz?

E. Bai, jauna, gure pecatuen, zorra paguetaco eguiten doguzan obra onacaz eurecaz, arimen oneraco eguiten badoguz. I. Eta pecatu mortalian yausten dan guztiyan, biar dau batec bertati confesau parcatu daquiyontzat? E. Ondo lizateque, baya eztago obligaciñoric. I. Cer eguin biar dau bada? E. Artu pecatu eguin dabelaco contriciñozco damu eguiyazcoa, proposituagaz enmendetaco, ta confesetaco Elexa Ama Santiac aguinduten dabenian.

I. Cer da pecatu veniala? E. Da pecatu mortaleraco disposiciño bat. I. Cegaitic dericho veniala? E. Arin yausten dalaco berian guizona, eta arin parcatutene yacolaco. I. Ceimbat gauza gaitic parcatutene yaco? E. Bederatzi gaitic.

I. Ceintzuc dira?

E. Lelengoa, meza enzutia gaitic.

Bigarrena, comulguetia gaitic.

Irugarrena ni becatariyau esatiagaitic.

Laugarrena, Obispoaren bendeciñoa gaitic.

Bostgarrena, ur bedeincatua gaitic.

Seigarrena, ogui bedeincatua gaitic.

Zazpigarrena, Aita guria esatia gaitic.

Zòrtzigarrena, sermoia entzutia gaitic.

Bederatzigarrena, bularra yoa gaitic,  
Jaungoicoari parca escatuten yacala.

I. Cegaitic diñozu Jaungoicoari par-  
ca escatuten yacala?

E. Eracusteco artu biar dogula pecatu  
venialen damu santua, euren par-  
caciñoa gauza oneetati alcanzau gura  
badogu. I. Eta pecatu venialac confe-  
sau biar dira? E. Ondo da confesetia,  
baya eztago obligaciñoeric.

I. Eta pecatu venialac baño ezpadau-  
caz confesetan doianac, cer eguin biar  
dau damua, ta propositua segurututeco?

E. Confesau, venialac batera, leena-  
go confesauta daucan pecatu mortalen  
bat bere. I. Cetaraco da Sacramentu  
Santu Comuniñocoa? E. Biar dan le-  
guez erreuibidu azquero; izan dintzat  
gueure arimen mantenimentua, eta gra-  
ciya aci, ta gueiyagotu deiguntzat.  
I. Ceimbat gauza biar dira, bada, ondo  
comulguetaco? E. Iru, jauna.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, barau naturalian egoitia.

Bigarrena, Jaungoicoaren graciyan  
egoitia. Irugarrena, cer erreuibietan  
dan yaquitia.

I. Cer da barau naturala?

E. Gaberdico amabiyetaric, eta co-

mulgau artian ecerbere artu bagaric egoitia. I. Eta celan yarrico da graciyan comulguetaco, pecatu mortalian aurquituten dana? E. Ondo confesauta, jauna.

I. Eta confesau azquero gogora bayatorco pecatu mortalen bat, cer egun biar dau? E. Barriro confesau, comulgau baño leenago.

I. Cer artzaiten dozu comulguetan zarrianian? E. Jesu Cristo Jangoico ta guizón eguiyazcoa, cein dagoan benebene-tan Sacramentu Altaracoan.

I. Cer da Sacramentu Santu Altaracoa? E. Ostiya consagradua eta Caliz consagradua.

I. Nos iminten da Jesu Cristo Ostiyan, eta Calizian? E. Sacerdotiac consagraciñoco berbac esaten dituzanian.

I. Eta berba santu aec esan baño leenago, cer dago Ostiyan, eta cer Calizian? E. Ostiyan dago ogui pusca bat, eta Calizian ardao pusca bat, ur tanga bategaz.

I. Eta consagraciñoco berbac esan azquero cer dago? E. Ostiyan Jesu Cristoren gorputza, eta Calizian Jesu Cristoren odola.

I. Ostiya consagraduan bago gorputza baño beste gauzaric? E. Bai, jauna, an dago Jesu Cristoren gor-

putzagaz batera bere odola, arimia, eta Jaungoicototasuna: eta bardin Caliz consagradian Jesu Cristoren odolagaz batera dago bere gorputza, arimia eta Jaungoicototasuna.

I. Consagraciñoco berbac esan azquero, bago Ostiyan oguiric, edo Calician ardaoric?

E. Ez jauna, ezpada oguiyaren eta ardoaren irudiya, edo accidentiac, ceintzue dirian usaiña, coloria, gustua, eta ganecoac.

I. Biciric ala ilic dago Jesu Cristo Ostiya, eta Callz consagradian?

E. Biciric, jauna, ceruan dagoan leguez, baya estalduta oguiyaren eta ardoaren irudiyacaz edo accidentiacaz.

I. Ostiya consagrada erdibituten edo apurtutenten bada, erdibituten ete da Cristoren gorputza?

E. Ez, jauna, bada ain osoric dago zati batian, cein bestian; ain osoric Ostiya chiquiyan, cein andiyan; eta Ostiyaren apurric chiquerrenian, cein Ostiya osoan: dagoalaco Jesu Cristo guztiya Ostiya guztiyan, eta guztiya Ostiyarenedocein zatitan edo apurretan.

I. Pecatu mortalian comulguetan danac artzaiten dau Jesu Cristo?

E. Bai, jauna, baya ez bere oneraco,

ezpada bere caltian, eguiten dabelaco sacrilegiyo icaragarri bat, eta Judasen pecatua.

I. Eta biar dan moduan comulguetan dirianac, cer gueyago eguin biar daudee frutu andiyagoac alcancetaco?

E. Comulgau baño leenago pensau ondo nor dan euren biyotzetara datorren Jaun andiya; eguin fedeco, esperantzaco eta caridadeco actoac; artu humiltasun eta bildur santu andiyagaz, eta comulgau azquero esquer onac emon mesede ain andiya gaitic, urten bagaric bertati (Judasec leguez) Elexaric campora.

I. Eta cer eguin biar da esquer onac emoiteco?

E. Munduco ardurac, eta cereguin guztiyac aldebatara ichi, centzunac ta biyotza batu, ta egon pensetan: ¿nor etorri da nigana? ¿nor da Jesu Crirto? eta ¿nor nas ni? Escatu guero gura dan guztiya, bada, ondo comulgau bagara, eztaco mesediac alcancetaco era ederragoric.

I. Orlan ezta ondo comulgau ta bertati altarac bisiteria, errosariyoa erreceptia, edo confesoriac emon deutsan penitenciya cumplietan egotia?

E. Ez jauna, bada orreec onac izan arren, eztira orduan eguin biar dirianac: orduan egon biar dau batec, ordu

lauren baten guichiyenez, leen esan doguzan gauzac bere artiyan gogoan darabiltzala.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Estremaunciñocoa?

E. Iru gauzataraco.

I. Ceintzue dira?

E. Lelengoa, lengo bicitza gaistoaren errastu, ta ondaquinac quentzaiteco. Bigarrena, arimiari indarra emoiteco demoniñoaren tentaciñoen contra. Iru-garrena, gorptzari osasuna emoiteco, arimiaren calteraco izango ezpada.

I. Eta uso errazoezcora eldu cirianac, gaiso peligruzcoagaz dagazanian, ete dauquee Sacramentu Santu au artzaiteco obligaciñoric?

E. Bai, jauna, eta pecatu mortala eguiten daudee, aleguinez artzaiten ezpadaudee, edo pecatu mortalian eguiten badaudee.

I. Bada cer eguingo dau pecatu mortalian dagoanac ondo artzaiteco?

E. Confesau leenago ta ecin confesau bada, artu contriciñozco damua.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Ordiaocoa?

E. Consagretaco, ta ordenduteco Elexaco ministro dignoac, celan dirian Sacerdotiac, Diaconuac, eta bestiac.

I. Eta Elexaco ministroai, beste en

artian bere Sacerdotiai, zor yaque errespeto andiyagoa?

E. Bai, jauna.

I. Cetaraco da Sacramentu Santu Matrimoniocua?

E. Ezconduteco ta ezconduei graciya emoiteco, ceinegaz alcarregaz baquian bici ditezan, eta Cerureco aci daguiyezan seme alabac.

I. Eta Sacramentu Santu au artzaiteco graciyan egon biar daudee ezconduten dirianac?

E. Bai, jauna pecatu mortalaren beian.

I. Eta graciyan eztagozanac celan prestauco dira ezconduteco?

E. Ondo confesauta.

*Pecatu capitalac dira zazpi*

Lelengoa, Soberbiya.

Bigarrena, Avariya.

Irugarrena, Lujuriya.

Laugarrena, Iria edo aserracunzia.

Bostgarrena, Guleriya.

Seisgarrena, Embidiya.

Zazpigarrena, Naguitasuna.

I. Cegaitic emoten deutseezu pecatu onei pecatu capitalen icena, gueiyenian pecatu mortalen icena emoten bayatee?

E. Emoten yaque pecatu capitalen icena, dirialaco beste pecatuen buru,

iturri ta sustraiyac leguez: eta pecatu mortalen icena echatorque ain ondo, bada ascotan venialac baño eztira.

I. Nos dira mortalac?

E. Jaungoicoaren eta progimuaren caridadiaren contra dirianian.

I. Nos dira caridadiaren contra?

E. Eurac gaitic austen danian Jaungoicoaren, edo Elexiaren mandamenduaren bat gautza pisuzcoan.

I. Cer da Soberbiya?

E. Bestiac baño gueiyago izateco gurari larregui bat.

I. Cer da Lujuriya?

E. Gorputzeco gustu loiyon gurari char bat.

I. Cer da Iria edo Aserracuntzia?

E. Benguetaco gurari cital bat.

I. Cer da Guleriya?

E. Yateco ta edateco gurari larregui bat.

I. Cer da Embidiya?

E. Besteet ona ecusi ecina.

I. Cer da Naguitasuna?

E. Gauza oneraco yausitasun, edo atzeracuntza bat.

*Zazpi pecatu oneen contra dagoz zazpi virtute.*

Soberbiyaren contra, humildadia.

Avariciyaren contra, prestutasuna.  
Lujuriciyaren contra, castidadia.  
Aserracuntziaren contra, pacienciya.  
Guleriyaren contra, yan eta edanian  
beguiratua izaitia.  
Embidiyaren contra, caridadia.  
Naguitasunaren contra bircortasuna.

*Arimiaren arerriyoac, ceintzuc ganic iñes  
eguin biar dogun, dira iru.*

Lelengoa, Mundua.

Bigarrena, Demoniñoa.

Irugarrena, Araguiya.

I. Nor da Mundua?

E. Guizon mundu zaliac, ta gaistoac.

I. Nor da Demoniñoa?

E. Da Jaungoicoac Ceruan eguin eban  
Angueru bat, cein yaigui zalaco, beste  
ascogaz batera, bere Majestadiaren  
contra, bota eban Infernura bere lagu-  
nacas batera, ceintzuei emoiten dutse-  
gu demoniñoen icena.

I. Nor da Araguiya?

E. Da gueure gorputza bera, bere  
gurari deungacaz.

I. Celan vencidu, ta iñes eguiten da  
mundua ganic?

E. Bere andiqueriyai ta vanidadiai ez  
yaramonegaz.

I. Celan vencidu, ta iñes eguiten da araguiya ganic?

E. Oneganic iñes eguiten da, ta au vencietan da, gorputza nequepian erabiliyagaz, bere gustuac ucatuagaz, ta barau eguinagaz. Au da areriyorik andiyena, cegaitic ece, ecin gueuganic bota guñai araguiya: mundua ta demoniñoa bai.

*Virtute Teologalac dira iru.*

Lelengoa, Fedia.

Bigarrena, Esperantcia.

Irugarrena, Caridadia.

I. Eta celan eztogu utsic eguingo, iru birtute oneen actoac eguiteco daucagun obligaciñoan?

E. Debociñoz ta sarri erregetan dogula (edocein cristiñauc eguin biar leuquiaz leguez) *Credoa ta Aita guria*: eta biyotzeric esaten dogula:

*Neure Jesu Cristo Jauna.*

*Virtute Cardinalac dira lau.*

Lelengoa, Prudenciya.

Bigarrena, Justiciya.

Irugarrena, Fortalecia, edo Sendotasuna.

Laugarrena; Templancia, edo yan  
edanian beguiratua izaitia.

*Gorputzeco cenzunac dira bost.*

Lelengoa, beguiyacaz ecustia.

Bigarrena, belarriyacaz entzutia.

Irugarrena, aoagaz gustu artzaitia.

Laugarrena, surracaz usain eguitia.

Bostgarrena, escuacaz ucututia.

I. Cetaraco emon euscuzan Jaungoi-  
coac cenzunac, eta gorputzeco alde  
guztiyac?

E. Guztiyacaz ta gauza guztiyetan  
bera serbietaco.

*Arimaco Potenciyac dira iru.*

Memoriya, entendimentua, eta bo-  
rondatia.

I. Cetaraco emon euscum Jaungoicoac  
memoriya?

E. Bera, tabere mesediac gogora ecar-  
teco.

I. Cerataco emon euscum entendim-  
entua?

E. Ezagututeco gueure Jauna, eta  
bera gogoan erabilteco.

I. Cetaraco emon euscun borondatia?

E. Bera ametaco ontasunic andiyena  
leguez, eta beragaitiz progimua.

I. Eta cer da gueure arimia, ceinenac  
dirian potenciya oneec?

E. Da espiritu bat, iños bere ilgo  
eztana, cein eguin eban ecebere eceric  
Jaungoicoac bere antzera ta irudira.

*Espiritu Santuaren Doiac dira zazpi.*

Lelengoa, Yaquituriyaco doia.

Bigarrena, Entendimentuko doia.

Irugarrena, Consejuco doia.

Laugarrena, Cienciyaca doia.

Bostgarrena, Fortalezaco doia

Seisgarrena, Piedadeco doia.

Zazpigarrena, Jaungoicoaren bildu-  
rraren doia.

*Espiritu Santuaren Frutuac dira amabi.*

Lelengoa, Caridadia.

Bigarrena, Baquia.

Irugarrena, Biotzeco anditasuna.

Laugarrena, Benignidadia, edo erru-  
quitasuna.

Bostgarrena, Fedia.

Seisgarrena, Continenciya.

Zazpigarrena, Arimaco poza.

Zortzigarrena, Pacienciya.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amacagarrena, Modu ona.

Amabigarrena, Castidadia.

*Bienaventuranzac, edo Zoriyontasunac,  
dira zortzi.*

1. Zoriyonecoac biyotzeti pobre dirianac, bada eureka izango da ceruco erreinua.

2. Zoriyonecoac mansoac, bada eurac izango dira lurraren yaube.

3. Zoriyonecoac negar eguiten daudeenac, bada eurac izango dira poztuac.

4. Zoriyonecoac onaren gose ta egarri dirianac, bada eurac asiac izango dira.

5. Zoriyonecoac erruquiorrac, bada eurentzaco bere erruquiya izango da.

6. Zoriyonecoac biyotgarbicoac, bada eurac ecusiseko daudee Jaungoicoac.

7. Zoriyonecoac baquetsuac, bada euriei emongo yaque Jaungoicoaren seemen icena.

8. Zoriyonecoac onac izanagaitic persecusioia daruenac, bada eureka izango da ceruetaco erreinua.

I. Cer esan dogu orain?

E. Zortzi Bienaventuranza, edo Zoriyontasunac.

I. Ce gauza dira Zoriyontasun oneec?

E. Dira Espiritu Santuaren virtuteetaric, eta doietaric datozan obraric onenac.

I. Nortzuc dira biyotzeti pobriac?

E. Eztaudeenac gura munduko onra-

ric, ez aberastasunic, ezta laburrenic bere: edo beintzat euretan biyotza ifini eztaudeenac.

I. Nortzuc dira mansoac?

E. Aserreric artzaiten eztaquiyenac, ezta bere apurric bere.

I. Celan izango dira luraren yaube?

E. Euren buruen yaube izanda.

I. Nortzuc dira negar eguiten daudeenac?

E. Atseguinic laburrenac berre echiten dituezanac?

I. Nortzuc dira onaren gose, ta egarri dirianac?

E. Aleguinaz ecetan bere utsic eguin gura ez leuqueenac.

I. Nortzuc dira erruquiorrac?

E. Iñori bere on baño besteric eguin gura ezteutseenac.

I. Nortzuc dira biyotz garbicoac?

E. Euren gurari charrac ucatuten ditubezanac.

I. Nortzuc dira baquetsuac?

E. Euren buruari, ta besteenai baque ona emon daroyenac.

I. Nortzuc dira onac izanagaitic persecuciñoia daruenac?

E. Gauza on guztiyetan sendo ta firme dagozanac, persiguiduac izan arren.

I. Cegaitic dericho onei zoriyontasunac?

E. Euretan dagoalaca bicitza oneitan zoriyonecoac izaitia, eta ceruaren espezanza menetacoa.

I. Ceimbat dira gizonaren acabuco gauzac?

E. Lau, jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Eriyotzia, Judiciyoa, Infernua, eta Gloriya.

I. Cer da Gloriya?

E. Da estadu edo bicimodu bat alde guztietati eguin eguina, ceinetan dagozan on guztiyac gachic bapere bagaric, Infernuan gach guztiyac onic bapere bagaric aurquituten dirian leguez.

I. Eta Infernuti librau, eta Gloriya alcancetaco, cer eguin biar da?

E. Mandamentuac gorde.

I. Eta bagoz bideren batzuc mandamentuac errazaco gordetaco?

E. Bai, jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Sarri Confesetia ta Comulguetia; goxian eguneco obra guztiyac Jangoikoari opatutia; egunian egunian meza enzutia; Ama Virginiarri Errosariyoa errecetia; liburu debotoetan iracurtia; oraciño mentala; gaubian gaubian concienciya esaminetia; eta guztiya baten

esatiarren, Confesore yaquitun, virtute andico, ta ondo beguiratu bat artu, ta gauza guztiyetan bere esanera egotia.

M. Ondo diñozu zuc ori, bada Jaungoicoa serbidu, ta bicitza onian irauteco laguntasun andiya da Confesore on bat euquitia. Eguizuz, bada, zuc bere aleguin guztiyac topetaco, SAN FRANCISCO SALESEC eta SANTA TERESAC diñueen leguez, ascoren artian oneen bat; eta Confesoria izango yatzu Angueru bat leguez, ceinec mandamentu santuen bideti eroango zaituzan Ceruco gloriya gozetara eltzaitartian.

M. Jaungoicoac guztiyoz ara eroan gaguizala. Amen.

---

## CONFESIÑO GENERALA

Ni pecatariyau confesetan nayaco Jaungoico guztiz Poderosoari, Santa Mariya beti Virginari, San Miguel Arcangeluari, San Juan Bautistiari, San Pedro ta San Paulo Apostoluai, Santu guztiyai, ta ceuri neure Aita espirituala, eguin dodala pecatu pensamentuagaz, berbiagaz, ta obriagaz: neure erruz, neure erruz; neure erru andiz: orregaitic erregututen deutsat Santa

Mariya beti Virginiarri, San Miguel Ar-  
caneluari, San Juan Bautistiarri, San  
Pedro ta San Paulo Apostoluai, Santu  
guztiyai, ta ceuri neure Aita espiritua-  
la, erregutu daguiyozula nigaitic gueure  
Jaun eta Jaungoicoari. Amen.

### ACTO CONTRICIÑOZCOA

Neure Jesu Cristo Jauna, Jaungoico  
ta guizon eguiyazcoa, neure Criyadoria  
ta Erredentoria; zariana zarialaco, eta  
ametan zaitudazalaco, gauza guztiyen  
ganian, damu dot, damu dot, Jauna,  
damu dot nire biyotz guztiric su ofendi-  
dua: eta iminten dot propositu firme  
bat, ceure graciayaz batera, ez gueiyago  
ofendietaco, eta apartetaco ofendidu  
ciñaidazan ocasioño guztiyetaric; neure  
pecatuac confesetaco, ta cumplietaco  
emoiten yatan penitenciya. Ofrecietan  
deutsudaz, Jauna, neure bicitzia, obrac  
eta trabajuac, neure pecatuen pagura-  
eo: eta confiyetan dot ceure ontasun eta  
misericordiya cabubacoagan, parcatu  
deustazuzala ceure odol guztiz precio-  
soagaitic, ta ceure Pasiño ta eriotzia-  
gaitic, eta emongo deustazula graciya  
emendataco, eta irauteco ceure servie-  
yo santuan neure bicitzia emoitartian.  
Amen.

*Fedeco, Esperanzaco, eta Caridadeco Actoac.*

Sinistuten dot Aita Jaungoicoagan, sinistuten dot Seme Jaungoicoagan, sinistuten dot Espiritu Santu Jaungoicoagan, sinistuten dot Jaungoico bacar bat iru personetan.

Sinistuten dot Trinidadeco bigarren personia Ama Virginiaren sabel guztiz garbiyan Espiritu Santuaren graciayaz guizon eguin zala, eta gu salvetarren yaizo zala, curtzian il, biztu, ta cerura igon ebala; eta Judiciyoco egunian etorrico dala biciyac eta ilae juzguetan, emoiteco onai betico Gloriya, eta deungai betico Infernua; sinistuten dot Santisimo Sacramento Altaracoan da-goala Jesu Cristo gueure Jauna, Jaungoico ta guizon eguiyazcoa, Ceruan da-goan berbera; eta sinistuten dot Elexa Ama Santiac sinistuten eta iracasten daben guztiya; eta fede onetan beti bici, eta il gura dot.

Esperetan dot Aita Jaungoicoagan, esperetan dot Seme Jaungoicoagan, esperetan dot Espiritu Santu Jaungoicoagan; esperetan dot neure Jaungoicoac parcatuco deustazala neure pecatu guztiyac, eta emongo deustala Ceruco gloriya, eta mundu onetan ara eltzaiteco biar dodazan graciya ta laguntasun

guztiyac, bere misericordiya cabubacoagaitic, Jesu Cristo gueure Jaunaren merecimentuac gaitic, eta bere graci-yagaz eguiten dodazan obra onac gaitic.

Ametan dot Aita Jaungoicoa, emetan dot Seme Jaungoicoa, ametan dot Espiritu Santu Jaungoicoa, ametan dot neure Jaungoicoa neure biyotz guztiti, eta gauza guztiyac baño gueiyago, dalaco bera guztiz ona ta amorosoa; eta bere amorearren, ametan dot neure progr-mua neure burua leguez. Amen.

---

*Gossian oeric yaiguita, bertati Jaungoicoari fede bici bategaz beguiratu, ur bedeinca-tua artu, curtze santiaren eguin, eta egun ataco obrac opatuteco*

## ORACIÑOA

Esquer andiyac eta alabanzacemoiten deutsudaz, neure Jaungoicoa, acereceti criyadu nozulaco, Cristiñau eguin eta Jesu Cristoren odol preciosoagaz erre-dimidu nozulaco: orain artian gordet nozulaco, eta orainguiño ceure escu santuetarie artu dodozan mesede guztiyac gaitic.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

Opa deutsudaz, Jauna, ceure gloriyaric andiyeneraco gaurco neure pensamentu, berba, neque, ta obra guztiyac, neure Jesus onaren odol ta merecimentuacaz batera.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

Jauna, neure pecatu guztiyen damua daucat, ceu gauza guztiyen ganian ametan zaitudazalaco; borondate sendo bategaz, ceure graciya lagun dodala, ceu ofendidu baño leenago neure bicitzia galtzaiteco. Baita artzaiten dot gogoa irabazteco gaur dirian Indulgenciya guztiyac neure pecatuen satisfaciñorako, ta Purgatoriyyoco arimen oneraco; eta orretaraco, opa bere deutsudaz gaurco neure neque, biar, atsacaba, ta pena guztiyac: eta obeto artuac izau ditezan, ofrecietan deutsudaz Ama Virginíaren escuetati, ceineri esquetan deutsadan bere Conceciño garbiya gaitic, ta bere doloriac gaitic, gorde nanguiyala gaur, da beti, gach guztiyetaric, bein bere ceure graciya galdu eztaguidantzat. Amen.

*Iru Ave Mariya Ama Virginíari.*

ANGUERU GUARDACOARI ORACIÑOA

Neure Angueru Guardaco maitia: gorde naguizu gaurco neure pausu, berba ta gauza guztiyetan, bencidu ez naguiyentzat neure areriyooac, egun eztaguidan ceure aurrian neure Jaungoicoaren contraco gauzaric: neure oraciño, ta obra onac eroan eguiuz Jaungoicoaren Tronuaren aurrera, ta alcanzadu eguidazu guero eriyotza on bat. Amen.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

SAN JOSEPERI ORACIÑOA.

Neure Aita San Josepe bedeincatu gozoa, Ama Virginiarren esposo egiyazcoa; Jesus guztiz gozoaren Aita ordecoa, eta eriyotzaco orduan dagozan tristien amparu segurua: nic artzaiten zaitudaz egun onetatan neure bitarteko ta defensoretzat; lagun eguidazu, bada, gaurco ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guztiyetan, dirianac izan ditezantzat neure Jaungoicoaren gloriyaco: ota neure eriyotzaco ordurestuan lagundu eguidazu, eta eroan eguiuzu neure arimia Jaungoicoa alabetan ceugaz batera, betico gloriyan. Amen.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

*Gaubian, oian sartu baño leenago, ur  
bedeincatua artu, curtze santiaren eguin,  
eta guero esango dirian.*

### ORACIÑOAC.

Neure Jaungoicoa, emon eguidazu graciya gau au ceu ofendidu bagaric iragoiteco, eta gorde nagizu gauza deunga guztiyetaric. Amen, Jesus, Mariya, ta Josepe.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

### AMA VIRGINIARI ORACIÑOA

¡O Virginia Mariya, Jaungoicoaren Ama maitia, eta pecataric triste guztiyen misericordiyazco Ama! Lagundu eguidazu gau onetan, librau nagizu gach guztiestaric, eta ez nagizu desamparau neure eriotzaco orduan.

*Iru Ave Mariya.*

### ANGUERU GUARDACOARI ORACIÑOA

Neure Angueru Guardacoa, lagundu eguidazu, eta gau onetan gorde nagizu: Jesus, Mariya, Josepe, socorridu nagizue. Joungoicoac emon daigula bere graciya, eta guero betico Gloriya. Amen.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

MAIYA BEDEINCATUTECO MODUA.

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espíritu Santuaren icenian. Amen.

Neure Jauna eta Jaungoicoa, gueure esperancia dago ceugan, eta zuc emoitzen dozu bere demporan yateco biar doguna. Ceure escua zabaldu, ta guztiyoc bendeciñoz betetan gozuz.

*Aita guria ta Ave Mariya, eta guero esango da:*

Ondasun guztiyen emoitia, eta gueure Jauna: ceure escuetaric artu, eta, eta yan biar dogun guztiya zuc bedeincatu eguizu, Jesu Cristo ceure Semia gaitic: Aitiac, eta Semiac, eta Espíritu Santuac, guztiyoc bedeincatua gaguiyezala, eta bere gloriyaco Maira betico eroan gaguiyezala. Amen.

YAN AZQUERO GRACIYAC EMOITECO

Aitiaren, eta Semiaren, eta Espíritu Santuaren icenian. Amen.

Esquerrac eta alabanzac emoitzen deutsuguz, Jauna, orain ta beti eguin deuscuzuzan mesede guztiyac gaitic. Ceuganic gueure ganera etorri dan bendeciño ta mesede onegaitic, mundu guztiac alabau zaguizala. Amen.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

Gueure onguin guztiyai, Jauna, pa-

gau eguiyezu ceure icen santua gaitic,  
eta arima fiel guztiyac eroan eguizuz  
ceu alabeta. Amen.

*Aita guria, ta Ave Mariya.*

Arima fiel guztiyai, Jaungoicoac emon  
daguiioela betico descansua, ta gueuri  
emon daigula bere graciya ta baquia.

Emen batu gaituzan Jaunac, batu ga-  
guizala guztiyoc Ceruco gloriyan. Amen

---

*Ave Mariyetacoac.*

v. Angueruac barri onac Ama Virgi-  
niari emon eutsazan.

r. Eta Espiritu Santuaren graciyaz  
Jaungoicoaren Semia-bere sabelean sor-  
tu zan.

*Ave Mariya.*

v. Ara emen Jaunaren esclabia.

r. Eguin bedi ninan zuc esan dozuna.

*Ave Mariya.*

v. Jaungoicoaren Semia guizon egui-  
zan.

r. Eta gure artian bici izan.

*Ave Mariya.*

v. Jaungoicoaren Ama Santia, erre-  
gutu eguiyu gu gaitic.

r. Cristoren promesen digno izan  
gaitezan.

## ORACIÑOA.

Emon eguzu arren, Jauna, gueure arimetanceure graciya, Angueruac barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semiaren guizon eguitia ezagutu dogunoc, bere Pasiño ta Crutzia gaitic, betico gloriyara eroanaz izan gaitezan. Amen.

## MEZA ERASOTECO MODUA.

Sac. In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti Amen. Introibo ad Altare Dei.

R. Ad Deum, qui lætificat juventutem meam.

S. Judica me Deus, et discerne causan meam de gente nonc sancta, ab homine iniquo et doloroso erue me.

R. Quia tu es Deus, fortitudo mea quare me repulisti, et quare tristi incedo dum affigit me inimicus.

S. Imiten lucem tuam ad veritatem tuam, ipsa me deduxerunt, et deduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua. R. Et introibo ad Altare Dei, ad Deus qui lætificat juventutem meam.

S. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea et quare conturbas me. R. Spera in Deo quoniam adhuc confitebor illi: salutare vultus mei, et Deus meus.

S. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui

Sancto. R. Sicut erat in principio, et nun, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

S. Introibo ad altare Dei. R. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

S. Adjutorium nostrum in nomine Domine. R. Qui fecit cœlum, et terram.

S. Confiteor Deo Omnipotenti, etc., et vos fratres orarē pro me ad Dominum Deum nostrum. R. Misereatur tui Omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam.

S. Amen.

R. Confiteor Deo Omnipotenti Beatae Mariæ semper Virgini, Beato Michæli Archangelo, Beato Joanni Baptista, Sanctis Apostoles Petro et Paulo, omnibus Sanctis, et tibi Pater: quia pecavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor Beatam Mariam semper Virginem, Beatum Michælem Archangelum, Beatum Joanem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

S. Misereatur vestri Omnipotens Deus et dimissis peccatis vestri perducat vos ad vitam æternam. R. Amen

S. Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrum tribuat

nobis Omnipotens, et misericors Dominus. R. Amen.

S. Deus tu conversus vivificabis nos.

R. Et plebs tua laetabitur in te.

S. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam. R. Et salutare tuum da nobis.

S. Domine exaudi orationem meam.

R. Et clamor meus at te veniat.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Oremus, etc.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Christe eleyson.

S. Christe eleyson. R. Christe eleyson.

S. Kyrie eleyson. R. Kyrie eleyson.

S. Kyrie eleyson.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Per omnia sacula sæculorum.

R. Amen.

*Epistolia acabauta.*

R. Deo gratias. S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum, etc. R. Gloria tibi, Domine.

*Evangeliyoa acabauta.*

R. Laus tibi, Christi. S. Orates fratres, etc. R. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis, ad lauden, et glorian

nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ santæ.

S. Amen.

*Prefaciyoa esaten danian.*

S. Per omnia sæcula sæculorum.

R. Amen.

S. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Sursum corda. R. Habemus ad Dominum. S. Gratias hagamus Domino Deo nostro. R. Dignum et justum est.

*Pater nosterra esan azquero.*

S. Et ne nos inducas in temptationem.

R. Sed libera nos a malo.

S. Pax Domini sit semper vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

S. Ite misa est, *edo* Benedicamus Domino R. Deo gratias.

S. Requiescant in pace.

R. Amen.

S. Pater, et Filius, et Spiritu Sanctus.

R. Amen.

S. Dominus vobiscum. R. Et cum spiritu tuo.

S. Sequentia Sancti Evangelii secundum... R. Gloria tibi Domine.

*Evangeliyoa acabauta.*

R. Deo gratias.

LAUS DEO.

## ADVERTENCIA

---

Surtido completo de libros para la 1.<sup>a</sup>  
y 2.<sup>a</sup> enseñanza, la del comercio y los  
idiomas.

Libros selectos referentes á Religión,  
Derecho, Ciencias, Artes y Oficios, Be-  
llas Letras é Historia.

Devocionarios sencillos y de lujo.

Misales, Breviarios, Rituales y demás  
libros del rezo divino.

Cromos y estampitas religiosas.

## DE VENTA

EN LA

LIBRERÍA, IMPRENTA, LITOGRAFÍA  
Y ENCUADERNACIÓN

DE

EMETERIO VERDES ACHIRICA

CALLE DEL CORREO N.<sup>o</sup> 9

(Antigua casa de Juan E. Delmas)

BILBAO

---

*Es propiedad del autor, y nadie podrá reim-  
primirla sin su licencia.*



